


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ELEBITASUNA: NATIBO ETA EZ- NATIBOAK AZTERGAI

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Martinez Calvo, Gorka

GRADUA: Euskal Ikasketak

SAILA: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

ZUZENDARIA: Erdozia Uriarte, Kepa

2018-2019 ikasturtean: ekaineko deialdia

LABURPENA

Gaur egungo mundu globalizatu honetan elebiduna izateak garrantzi handia hartu du. Jende elebiduna zein eleanitza aurkitzea geroz eta ohikoagoa da eta, hortaz, bigarren hizkuntza baten ikasketa arruntena da gaur egungo gizartean. Elebitasunak hartu duen garrantziaren ondorioz, elebidunen ikerketak areagotu egin dira. XX. mendean, psikolinguistika alorra sortzean, elebakarretan zentratzen ziren ikerketak batez ere; aldiz, elebitasunak garrantzia hartuz geroztik, ikerketa eta esperimentu ugari burutu dira hiztun elebidunen inguruan.

Honi jarraituz, lan honetan batik bat bigarren hizkuntza (hemendik aurrera H2) baten ikaskuntzan zentratuko naiz, askotan lehen hizkuntza edo ama-hizkuntzako (hemendik aurrera H1) garapenarekin, ikaskuntzarekin, jabekuntzarekin eta prozesamenduarekin alderatuz, desberdintasunak ikus ditzagun. Honekin batera, XX. mendean zehar garatutako hizkuntza jabekuntzaren ideia desberdinak aurkeztuko ditugu (innatismoa, behaviorismoa...). Honi jarraituz, aro kritikoaren hipotesiari arreta jarriko diogu.

Ondoren, H2ko ikaskuntzan zentratuko gara; honetarako, bigarren hizkuntza baten ikasketa prozesuan eragina duten alderdiak aurkeztuko ditugu. Faktore horien artean H1 eta H2ko (des)berdintasunak, jabekuntza-adina, hizkuntza-maila edota murgilketa egongo lirateke. H2ko maila jaiotzetiko hizkuntza baten mailara heltzeko zailtasunak zeintzuk diren ikusiko ditugu, hiztunen erronketako bat baita natiboen maila lortzea; hortaz, hizkuntzaren zein alor (fonologia, sintaxia, lexikoa...) gara daitekeen gehiago eta gutxiago ikusiko dugu.

Elebitasunarekin jarraituz, honek dituen abantaila zein desabantailak azalduko dira, betiere elebakartasunarekin alderatuz. Elebiduna zein eleanitza izateak onura handiak ditu, hala nola hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzen jakitea. Aitzitik, elebidunak izan ditzakeen kalteak ere aurkeztuko ditugu. Ikusiko dugu zeinek hobe ditzakeen kognizio prozesuak eta zeinek gal lezakeen hitz-jariakortasuna hiztegi ariketetan, esate baterako.

Jakinda gure hizkuntza kasu-sistema ergatiboa dela, azken atalean ergatibotasunaren prozesamenduaz arituko naiz, bi artikuluko oinarri hartuta. Honetan,

ikusiko dugu natiboek eta ez natiboek nola prozesatzen duten ergatibotasuna. Esan bezala, euskara ergatibo-absolutiboa da; espainola aldiz, nominatibo-akusatiboa. Ikusita hizkuntzen arteko bereizle bat kasu sistema dela, interesgarria egingo zaigu jakitea natibo eta ez natiboen prozesamendu sintaktikoen desberdintasunak, ondorioak atera ditzagun. Lanari amaiera emateko, jorrotutako elebitasunaren gai honetatik ateratako ondorioak plazaratuko ditut, baita nire ikuspuntua ere.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
1.1. Hizkuntza-jabekuntzako ideiak	7
1.2. Hizkuntzaren irudikapena burmuinean	8
2. Lehen eta bigarren hizkuntzak	8
2.1. Zer da H1?	8
2.2. Eta zer H2?	9
3. Ikasketa prozesu desberdinak	10
3.1. Gramatikaren garapena lehen hizkuntzan	10
3.2. Aro kritikoaren hipotesia	11
3.3. Aro Kritikoaren hipotesia H2n	12
4. H2ko ikasketan eragina duten faktoreak	14
4.1. H1 eta H2ko antzekotasunak	15
4.2. Jabekuntzaren adina	16
4.3. Hizkuntza maila	16
4.4. Immertsioa	17
4.5. Akats motak	17
5. Elebiduna izateak abantailak eta desabantailak ditu	18
5.1. Abantailak	19
5.1.1. Estrategia kognitibo berrien ikaskuntza	19
5.1.2. Lehen hizkuntzaren ulermen hobea	20
5.1.3. Kognizio prozesuaren hobetzea	20
5.2. Desabantailak	21
5.2.1. Hitz-jariakortaunaren moteltzea	21
5.2.2. Hizkuntzen arteko interferentziak	22
6. Ergatibotasunaren prozesamenduaz ikerketa	23
6.1. Ergatibotasunaren prozesamendua: natiboak eta ez natiboak	24
6.2. Ergatibotasunaren prozesamenduaz beste ikerketa bat	26
4. Ondorioak	28
Bibliografia	29

1. SARRERA

1.1. HIZKUNTZA-JABEKUNTZAKO IDEIAK

XX.mendean, hizkuntzalaritzako eta psikologiako ikertzaileengan hizkuntz jabekuntzaren inguruko jakinmina sortu zen. Mende horretan gizakiok nola garatzen eta prozesatzen dugun hizkuntza eta, orkorrean, nola jabetzen garen hizkuntzaz ikertzen hasi ziren hizkuntzalariak. Hipotesi eta teoria anitz sortu ziren; aipagarrienak hurrengoak izango genituzke: Jean Piaget psikologoaren kognitibismoa, Lev Vigotsky errusiarraren teoria soziokulturalak, Frederic Skinnerren konduktismoa eta Noam Chomsky hizkuntzalariaren innatismoa.

Aipatutako XX. mendeko lehen erdiko 4 teoria horiek garrantzitsuak izanik, Noam Chomskyren innatismoan zentratuko naiz, azpiatal honetan garatuko dudana gaia bere teoriarik oinarritzen baita. Gramatika Sortzailearen aitzindaria dugu eta honetan, bi alderdi nabarmentzen ditu. Alde batetik, ikuspegi mentalista dugu, non hizkuntza gogo/burmuinean dagoen gaitasun bat bezala aztertzen den. Bestetik, ikuspegi kognitiboa dugu eta hemen, zientzia kognitiboak giza adimena eta haren ahalmenak aztertzen ditu. Hizkuntza-gaitasuna ahalmen kognitibo bat bezala hartzen da. Barneko Hizkuntzaren (*I-language*) garrantzia azpimarratzen du, hizkuntzen barneko egitura nolakoa den sakondu nahian.

Honetaz aparte, Chomskyk Gramatika Unibertsala fenomeno nabarmendu zuen. Honek jaiotzetiko hizkuntzaren ezagutzari garrantzia emanez, hizkuntza guztiek amankomunean dituzten ezaugarriak azpimarratzen ditu; hau da, zenbait egitura gramatikal hizkuntza guztietan berberak dira. Honekin batera, Hatsarreak eta Parametroak teoria (Chomsky, 1988) kontuan hartu beharko genuke. Teoria honek zera azaltzen du: hatsarreak hizkuntzek orokorrean amankomunean ezaugarriak dituztela azaltzen digu; parametroak aldiz, hizkuntza bakoitzak dituzten ezaugarriak, bata bestetik desberdintzen dituztenak. Innatismoaren arabera, haurrek jaiotzetik hizkuntza garatzeko ahalmen innatoa daukate, biologikoki programatua (aurrerago Lakaren (2008) artikularekin azalduko dut); hortaz, hizkuntzalariak defendatuko du hizkuntza gizakiok amankomunean daukagun ezaugarri bat dela; behin jaiota, innatoa den hizkuntz ahalmenaren bitartez, haurra ingurutik jasotako hizkuntzezko inputetatik hizkuntzaren ezaugarriak identifikatu eta garatzen hasiko da.

Mackeyken (2010) lanean azaltzen da nola hurrek jasotzen duten input urri, oker eta osatugabeekin hizkuntza bat garatu ahal duten. Jaiotzen garenetik, gizakiok jabetuko garen hizkuntza entzutean, perpaus osatugabe eta kaxkar asko entzuten ditugu; urteak pasa ahala, inoiz entzun ez ditugun perpausak sor ditzakegu, nola izan liteke hori? Pentsa dezakegu jaiotzen garenetik hizkuntza garatzea ahalbidetzen digun jaiotzetiko sen bat daukagula, hizkuntza gaitasuna. Bestela, nola azal genitzake umeek inoiz entzun gabeko **doten* bezalako formak? edo ingeleseko iraganaean hurrek sortutako **goed* forma agramatikala *went* formaren gainean osaturik egotea? Haurak erregulartasun batetik abiatuz, *studied*, *watched* edo *called* iraganeko forma erregularren gainean eraikitako aditz irregularren forma okerrak sortzen ditu, horrek Gramatika Sortzailea berresten du.

Lakaren (2008) artikulua adierazten duenez, hizkuntzak sustrai biologikoak ditu. Egileak dio gizakiok daukagun hizkuntza-gaitasuna ulertzeko, moldaera biologikoei erreparatu behar diegula eta, horretarako, alorren arteko intersekzio-esparru bat sortu dela, egile batzuk *biohizkuntzalaritza*¹ deitu dutena (Jenkins 2000). Ikuspegi hau 1950-1970 urteen artean sortu zen, konduktismoa kritikatu, zientzia kognitiboak sortu zirenean. Ikuspegi honek gizakiok hizkuntza garatzeko jaiotzetiko gaitasun bat dugula adierazten du, buruan dugun kognizio-sistema bat. Arestian aipatu bezala, Chomskyk innatismoaren aitzindaria, hizkuntzak senezko ezaugarriak dituela adierazi zuen, Skinnerren *Verbal Behavior* liburuari egindako kritika batean. Honi bermea emateko, Lakak (2008) aipatzen du FOXP2 genea eta hizketa/hizkuntzaren artean harremana dagoela.

Hizkuntzalaritza esperimentalari esker, ikertzaileek denbora errealean gertatzen diren gogo-prozesuak zehazki azter ditzakete. Lakak (2008) dio *gizakiongan bakarrik eta hizkuntzarako bakarrik sortu diren kognizio-mekanismo bereziek izan duten eboluzio-ibilbide luzea* kontuan hartu behar dugula; hortaz, kognizio-mekanismo horiek eboluzio bat izan dutela historian zehar baieztatzen du.

¹ Biohizkuntzalaritza: psikologia, hizkuntzalaritza, neurozientzia eta genetikaren arteko elkarketa batek osatzen duen zientzia liteke.

1.2. HIZKUNTZAREN IRUDIKAPENA BURMUINEAN

Errealitatean existitzen den objektu edo kontzeptu bat, hari dagokion hitz baten bidez irudikatzen dugu burmuinean. Nahiz eta aurrean ez izan, hitz horren errepresentazio mentala burmuinean gordeta daukagu. Adibidez, *katu* hitza animali bati dagokion hitza da. Gure aurrean, espezie horretako animaliarik egon ez arren, hitz hura ikasi eta gureganatu genuenean, animalia horri lotu genion; hortaz, gure burmuinean katuaren irudia hitz batez ordezkaturik egongo da. Objektuen errepresentazio mentalak burmuinean gordeta daude.

Elebiduna izatean, hiztunak objektu bakoitzeko bi hitz (sinonimia alde batera utzita) izango ditu eta honek gogoeta batera eramaten gaitu: elebidun horren hizkuntza desberdinen errepresentazio mentalak burmuinean bi sistema banandutan edo sistema berberan agertuko dira?

Abdelilah-Bauer-ek (2007) aipatzen du hizkuntzak umearen bigarren hizkuntza-jabetzearen adinaren arabera irudikatzen direla burmuinean; hau da, bigarren hizkuntza horren jabetzaren noiz gertatzen deneko uneak eragina daukala elebidunen hizkuntzek burmuinean izango duten errepresentazioan. Elebidun goiztiarrek sistema interdependientea (**elebitasun konposatua**) izango lukete eta elebidun berantiarrek aldiz, bi sistema desberdin eta bereziak (**elebitasun koordinatua**).

Esate baterako, Euskal Herrira etorritako familia aleman batek haur euskaldun bat izatean eta ume honek (jaiotzetik alemanieraz) bere haurtzaroan euskara H2 (elebidun konposatua) garatuz gero, bi sistema linguistiko garatuko lituzke. *Hund* (txakur) zeinu linguistikoak eta *txakur* zeinu linguistikoak objektuaren errepresentazio mental berbera izango lukete. Elebidun koordiantu batek aldiz, bi sistema linguistiko garatzean, *hund* zeinu linguistikoak errepresentazio mental bat eta *txakur* zeinu linguistikoak beste errepresentazio mental bat izango luketela dio Abdelilah-Bauerrek (2007) artikuluan, nahiz eta objektua (txakurra) berebera izan.

Aipatutako hipotesia ukatuz, Jim Cummins-ek (1979) dio hiztun elebidun batek burmuinean ez dituela bi sistema linguistikoak bi errepresentazio mentaletan irudikatuta; aitzitik, bi sistema linguistikoek objektuen errepresentazio mental berbera elkarbanatzen dutela. Autoreak ondoko adibidearekin azaltzen du: demagun iceberg batek bi gailur dituela, gailur bakoitza sistema linguistiko baten metafora izanda. Beste

zatian aldiz, urperatuta dagoen oinarri horretan, ahozkoa ez den errepresentazioa dago (irudia). Esan bezala, gailur bakoitzak sistema linguistiko bat errepresentatzen du eta oinarriak aldiz, pentsaera (objektua); hortaz, hizkuntza batean zein bestean idaztean, hitz egitean, irakurtzean, oinarritzat hartutako irudi berberetan oinarrituko da hiztuna (bi sistema linguistiko, burmuinean bi sistema, irudiaren errepresentazio mental bakarra).

Tesi hau berrindartzeko, Cumminsek dio pertsona batek behin bakarrik ikasten duela oinez ibiltzen, hortaz, behin bakarrik ikasten dugula hitz egiten. Elebidunak komunikatzeko bi sistema linguistiko ditu, A hizkuntza eta B hizkuntza; sistema linguistiko horiek burmuinean independente dira baina objektuen errepresentazio mental batekin, oinarria dena. Aipatutako adibidean, iceberg-a burmuina litzateke, oinarri sendoa errepresentazio mentala, irudi berberak bi hizkuntzetarako, gailurrak aldiz, bi sistema linguistiko, bata bestearekiko independente, baina objektuen errepresentazio berberarekin.

2. LEHEN ETA BIGARREN HIZKUNTZA

2.1. ZERI DEITZEN DIOGU H1?

H1en izendapena askotarikoa da eta Saviile-Troikek (2006) bere liburuan hainbat izenekin erreferentzia egiten dio H1 honi: ama-hizkuntza, jaiotzetiko hizkuntza... Ziurrenik elebitasunaren inguruan ezer gutxi dakitenei galdetuko bagenie H1 zer den, gehienek erantzungo luketeena “ama-hizkuntza dela” izango litzateke; erantzun egokia da baina, zer gertatuko litzateke jaiotzetiko elebiduna bazara eta bi lehen-hizkuntza baldin badituzu? Horrek esan nahiko luke haurtzaroan bi hizkuntza garatu dituzula. Hortaz, zer gertatzen da haurtzaroan bi hizkuntza garatuz gero? Zein da H1 eta zein H2? Edo biak al dira H1? Hor dago gakoa, elebitasuna goiztiarra denean mugak aldatu egin daitezkeela.

H1 jaiotzetik haurraren garapenarekin batera eta modu naturalean eta inkontzienteki jabetzen garen hizkuntza da. Saviile-Troikek (2006) jaiotzetik elebiduna denari *simultaneus bilingual* edo **aldibereko elebiduna** izena ematen dio; hortaz, guk 2H1 izenpean izango ditugu jaiotzetiko elebidun horiek, jaiotzetik bi hizkuntzak bereganatzen baitituzte. Baina esan bezala, non dago muga? Elebidun goiztiar sailkapen horren barruan, beste mota bat sartuko genuke, ez jaiotzetik baina urte gutxi pasata eta

hautzaroan garatutako bigarren hizkuntzen elebiduna. Hauek *successive bilingual* edo **elebidun jarraikorrek** izango dira, hizkuntzak ez aldiberean baina bai jarraian garatu baitira, bata bestearen atzetik.

2.2 ETA ZERI H2?

H2 edo bigarren hizkuntza (hirugarrena edo laugarrena ere izan daitekeena) lehenengo hizkuntzaren (H1) ondoren ikasi diren hizkuntzei deituko diegu. Goian aipatutako 2H1 edo **aldibereko elebidun** horrekin alderatuz, H2 hau esparru formalago batean ikasitako hizkuntza da, ikasitakoa, bestea inkontzienteki, modu naturalean garatzen baitugu. Modu formalagoa esaten dugunean, erreferentzia egin diezaiokegu eskolan, akademian edo immertsioz egindako ikaskuntzari, modu naturalean ez den estrategia desberdinak erabiliz; esate baterako, lexikoa edo egitura sintaktikoak buruz ikastea.

H2 bi fasetan bereiz genezake, baina aurrekoan aipatu dudan legez, bai hizkuntzalari bai psikologoentzat zaila da muga bat jartzea.

Alde batetik H2 goiztiarra dugu, txikitan (pubertaroan edo) bigarren hizkuntza jasotako elebiduna. **Aldibereko elebiduna** eta **elebidun jarraikorra** elebidun goiztiarrak dira; desberdintzen dira lehenengoek bi ama-hizkuntza (2H1) edo bigarren hizkuntza hautzaroan garatu dutelako (aro kritikoa heldu baino lehen) eta bigarrenek, aldiz, modu jarraikorrean garatu dutelako baina ez dira 2H1 (edo ez dute bi ama-hizkuntza)

Bestetik, H2 berantiarra dugu; adinarekin edo helduagoa izanik ikasitako elebiduna sartuko genuke multzo honetan. Atal honetan deskribatzen ari garen elebidunak aldiz, bigarren hizkuntza lehenengoaren ondoren ikasi dutenak izango lirateke.

Saville-Troikek (2006) adierazten du H2ko ikasketaren arrazoiak garrantzi handia daukala, hizkuntzaren ikasketaren amaieran lortutako mailarekin zerikusi handia duelako. Ikasketaren xedeen arabera, ikasleak hizkuntzaren alor desberdinetan maila bat edo beste bat izango du (batzuk pragmatikoagoak izango dira, beste batzuk sintaxi

egitura hobeak sortzean zentratuko dira...). Hortaz, helburuak ere lotura handia izango luke H2an lortutako mailarekin.

3. IKASKETA PROZESU DESBERDINAK

3.1. GRAMATIKAREN GARAPENA LEHEN HIZKUNTZAN

Jaio eta 2 urtetara, orokorrean, haurra bi hitzez osatutako esapideak ekoizten hasiko da eta hortaz, H1aren gramatika erabiltzen hasiko da (Abdelilah-Bauer, 2007). Hitzen konbinaketaz hizkuntza horren sintaxiaz jabetuko da eta umearen gramatika azkartasunez bilakatuko da, esaldi konplexuagoak sortuz.

Duela ez horrenbeste pentsalari askok defendatzen zuen haurrek inguruko pertsonak imitatuz euren ama-hizkuntza garatzen zutela (King, 2010). Haatik, hizkuntzalari askok baieztatu bezala, haurrek ez dituzte soilik perpaus zuzenak jasotzen. Orokorrean, ahozko-hizkuntza errepikapenek, perpaus osatugabeek eta etenek osatzen dute. Hori horrela izan arren, haurrek euren ama-hizkuntzaren gramatika ondo garatzen dute. Umeek gai izan behar dute entzuten duten egituren erregularitateen azterketen bidez ama-hizkuntza horren arauak ateratzeko; horren bidez, inoiz entzun gabeko esaldiak ekoiztuko dituzte. Umeek sortzen duten analogiatik hizkuntza aldaketak datoz; erreparatu diezaiegun hurrengo adibideei:

(1) dogu, dozu, dozue / dogun, dozun, dozuen

(2) dot / *doten, dodan

Ikus dezakegun moduan, NOR-NORK saileko 3.pertsona objektua dugun paradigma honetan, analogiaz sortuko du umeak NORK 1. pertsona plurala duen erlatiboazko aditz-laguntzailea (1). Aurrekoei jarraituko die eta analogiaz, umeak *-(e)n* gehituko dio aditz-laguntzaileari eta hortaz, agramatikala den adizkia ekoiztuko du. Gainerakoak erregularrak direnez, horren bidez **doten* adizkia sortuko du, forma gramatikala irregularra baita: *dodan*. Ingelesaren adibide bat ipintzearen, ezaguna den aditz irregularren arauari soilik erreparatu behar diegu. Ume ingeles batek pentsatuko du iragana sortzeko aditzari amaierako *-ed* morfema soilik gehitu behar zaiola eta hortaz, **goed* bezalako formak ekoiztuko ditu, *went* forma gramatikalaren gainean. Horrelako akatsak ekoizteak pentsarazten digu umeek jaiotzetik hizkuntza sortzeko ahalmena daukatela, Chomsky hizkuntzalariak Gramatika Sortzailea deituko zuen moduan. Beraz,

esan genezake ez direla akats moduan interpretatu behar, baizik eta gizakiok daukagun hizkuntza sortzeko ahalmena dela. Hizkuntza garapenaren aro bakoitzak akats espezifiko, erregular eta ume guztietan antzekoak izango dira.

Esan bezala, hizkuntzaren garapenaren aroetan jazotako gertakari hauengatik guztiengatik, Chomskyk proposatu zuen elkarreragina baino zeozer gehiago zegoela hizkuntzaren jabetzaren atzean. Hizkuntzalari amerikarrak Gramatika Unibertsala deitutako ahalmen jakin batekin jaiotzen dela gizakia berretsi zuen. Nahiz eta pentsaera honek bere garaian kritika ugari jaso, gaur egun bermea daukan hipotesia dugu teoria innatista hura. Dena den, jaiotzetiko gaitasun horrekin soilik, Gramatika Unibertsalarekin, ez da nahikoa eta gizakiok ama-hizkuntzaren garapenerako elkarreraginen beharra dugu. Seymour Bruner psikologo estatubatuarrak, Gramatika Unibertsalaren existentzia onesten du, baina umearen inguruan bermea ematen dion sistema bat atxikitzen dio, *Language Acquisition Support System* (LASS). Umearen inguruak ama-hizkuntzaz jabetzeko aukerak ematen dizkio. Momentu errepikatuak, hala nola askaltzeko momentua, dutxa, lo egiteko momentuak, ama, aita edo zaintzaileak umearrekin elkarreraginean dabilzan uneak dira; hortaz, umearen inguruko pertsonekin burututako interakzio errepikakor eta sentikor hauen bitartez, umeak hizkuntza ekoiztu ahal izango du.

3.2. ARO KRITIKOAREN HIPOTESIA

Egoera normaletan lehenengo hizkuntza edo ama-hizkuntza jaiotzen garenetik eta amaren umetokian gaudenetik garatzen hasten dugu. Ba al dago adinik non ama-hizkuntza garatzea ezinezkoa den? Haur basatien kasuak ditugu zoritxarreko egoera horietakoak. Kasu hauetan, haurrak basoan galdu edo egoera isolatuan aurkitzen dira, zibilizaziotik kanpo. Psikolinguistikaren alorrean oso famatua den kasu bat aipatzea beharrezkoa da eta Gennie izeneko neskaren egoera hartuko dut hizpide. Gennie Californian jaiotako ume bat da eta 13 urte egon da modu isolatuan bizitzen. Bere ama itsua zen; aitak aldiz, gaixotasun bat zeukan eta honek haurra bahitu eta gela batean isolatua uzten zuen, inorekin erlazionatu gabe eta zibilizaziotik kanpo. Egoera hau argitara ateratzean, ikertzaileek muturreko kasutzat hartu zuten eta ikertzen hasi ziren. Adin batetik gora ezinezkoa da hizkuntza garatzea, hots, lehen hizkuntza nerabetasuna baino lehen garatzea beharrezkoa da, Hleko gaitasun maila gorenena izan dadin.

Lehenengo hizkuntza adin tarte baten barruan garatu behar da, bestela hiztuna ez da gauza izango sekula perpausak egiteko, baldintzak sortzeko... hau da, konplexutasun morfologikoak burutzeko; hortaz, ama-hizkuntza garatzeko aro kritiko bat dagoela baieztatu genezake.

Aro kritikoaren hipotesia argitaratu zenetik, biologiaren alorretik asko eztabaidatu den kontzeptua izan da. Haur-basatien kasuarekin jarraituz, adin zehatz batetik aurrera Gramatika Unibertsalaren bitartez ezin dezakegula hizkuntza bat garatu defendatzen du hipotesi honek. Genie izeneko neska horrek 13 urterekin hasi zen bere ama-hizkuntza garatzen, inoiz ez zuen 2 urteko haur baten maila hobetu; kasu honek erakusten du pubertaroa eta gero gizakia ezin dela hizkuntzaz jabetu lehenago egin ez badu. Honelako kasuekin, ikertzaile askok aipatutako aro kritikoa baino, aro sentikorra deitzen diote jaiotzetik pubertarorako aro horri, hizkuntzaz jabetzeko aro egokiena dela defendatuz. Hizkuntz gaitasuna burmuinaren funtzio biologikoa da, beste pertsonetatik ikasia baino, innatoa. Genniek burmuineko gaitasun hori garai egokian garatzeko aukera galdu zuen (hautzarotan, 3 urterekin edo).

3.3. ARO KRITIKOAREN HIPOTESIA H2N

Nola eragiten dio aro kritikoaren hipotesiak bigarren hizkuntzen jabetuntzari? Badakigu hizkuntzak gure geneekin nolabaiteko lotura duela eta gizaki orok beste hiztunekin harremanetan eta elkarreraginean jarriz gero, hizkuntza gara dezakeela.

Helduek bigarren hizkuntza bat ikasi eta gero lortutako gaitasunak ume batek garatutako ama-hizkuntzak jasotako gaitasunekin alderatuz gero, umeen aldeko desberdintasun nabarmena kausitzen da. Hortaz, umeak ama-hizkuntza garatzean eta heldu batek H2 ikastean hizkuntzaz jabetzeko estrategia desberdinak aplikatzen direla berresten dute ikertzaileek. Helduen kasuan, H2 ikasteko estrategia orokorrak aplikatzen dituzte, arazoak ebazteko estrategiak, kognizio flexibilitatearen² bitartez, esate baterako. Haurren kasuan aldiz, euren ama-hizkuntza garatzeko orduan gaitasun innatoen bitartez garatzen dute hizkuntza, inkontzienteki, alegia.

² Bi kontzeptuen arteko pentsamendua aldatzeko adimen-gaitasuna da.

hizkuntzaz jabetzeko eta aberastasun gutxiago lortuko dute bigarren hizkuntza horretan; hortaz, zenbat eta lehenago hizkuntza bat ikasten hasi, orduan eta aukera gehiago izango duzu natiboek hizkuntza horretan daukaten maila gorenera iristeko.

IRMf (erresonantzia magnetiko funtzionalak) irudien bitartez eginiko ikerketa batean ⁴ egiaztatu da hizkuntza jakin batekiko zirkuito neuronalen finkapena itzulgarria dela 8 urtera arte. 3-8 urte bitarteko umeak Frantziako hainbat familiek adoptatu zituzten; herrialde aldaketa honen ondorioz, euren lehen hizkuntza oso garaiz utzi eta lurralde hartako hizkuntza ikasi/garatu behar izan zuten, hots, frantsesa. Ikerketan, burmuinaren aktibitatea neurtu zen hizkuntza arrotzen esaldiak entzutean, korearra hizkuntza horien artean; hizkuntza hau (korearra) entzutean, *IRMf*-k ez zuen ama-hizkuntza bati dagokion inolako aktibitateirik erakutsi. Haatik, frantsesa entzutean, aipatutako aktibitateak eragin zizkien hiztunen burmuinak, frantsesa ama-hizkuntzat daukan edonork egingo lukeen aktibitate mugimendu berarekin. Ikertzaileek egiaztatu dutenez, ume korearrei gertatutako egoera bera beste ume batzuei gertatuz gero (ama-hizkuntza abandonatzea), ondoriozta dezakegu 3-8 urte bitartean garatutako bigarren hizkuntza hura ama-hizkuntza bezala garatuko dutela eta ama-hizkuntza moduan barneratu dutela.

4. H2KO IKASKETAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK

Lan honen laburpenean aipatu bezala, gizarte globalizatu honetan H2ko ikasketak garrantzi handia hartu du. Gainera, hizkuntza bat ikasten ari diren hiztun batzuen helburua edo erronka natiboek euren ama-hizkuntzan duten gaitasun bera lortzea da. Haatik, bigarren edo hirugarren hizkuntza baten ikasketa prozesuan eragina duten hainbat faktore daude: H1-H2 arteko (des)berdintasunak, jabetasun-adina, H2n lortutako maila, H2ko murgilketa, H2ko ikasketa-iraupena...

Oinarrituko naizen artikulua Caffarra eta beste (2015) artikulua da; honetan, egileek adierazten dute orokorrean jendeak atzerriko hizkuntza bat ikasi behar izan duenean, arazo gehiago erakutsi dituztela sintaxiaren prozesamenduan edo fonologian,

⁴ Pallier, C. eta besteak (2003): "Brain imaging of language plasticity in adopted adults: Can a second language replace the first?", *Cerebral Cortex* 13 (2), 155-161 orr

semantikan edo lexikoan baino. Jarraian, aurreko paragrafoan aipatutako faktoreak azalduko ditut.

4.1. H1 ETA H2KO ANTZEKOTASUNAK

Ama-hizkuntza baten ezagutzak hizkuntza berri bat jabetu eta prozesatzeko orduan eragin nabarmena dauka. Orokorrean, pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago dakienean biak nahasteko arriskua dauka, azken finean gogo-elebidunean gutxienez bi hizkuntza dituzu eta biek joki dezakezu. Horri lotuta, garatutako H1 eta ikasitako H2k dauzkaten ezaugarriak nahas daitezke; haien arteko berdintasun eta desberdintasunek hizkuntzen arteko nahasketen eragin positibo edo negatiboak ekar litzakete. Ondorio hauek hizkuntza barneko hainbat atali eragin diezaiekete; hala nola, fonologia, fonetika, morfosintaxia, pragmatika, semantika eta lexikoa. *Competition Model* izeneko ereduaz aztertzen da zer-nolako eragina daukan H1en ezagutzak H2an; esate baterako, H2ko prozesamendu sintaktikoan (MacWhinney, 2005). H1 eta H2ko sistema sintaktikoak zentzu batean berdintsuak direnean, elebiduna bere ama-hizkuntzako egitura sintaktikoez baliatu daiteke H2ko perpausa sortzeko. Hortaz, sintaktikoki bi hizkuntzak egitura berbera edo antzekoa izanik, eragina positiboa izango da. Aitzitik, lehen hizkuntza eta bigarren hizkuntzak egitura sintaktiko desberdinak badituzte (SOA eta SAO, esate baterako)⁵, hiztuna ezin izango da baliabide horretaz baliatu. Esan bezala, egitura sintaktiko desberdinak lituzkete eta hizkuntzen arteko konbiantzioak eragin negatiboa ekarriko luke; hortaz, akatsak sortu eta ez-gramatikaltasunera eramango gintuzke. *Functional features hypothesis*-ak dio elebidun baten H2ra transferitu ahal direla H1ean dauden ezaugarriak. *Full transfer and full acces model*-ak aldiz, jendeak arau berriak gramatikalizatu ahal ditu bere H2an nahiz eta H1ean ez ageri.

Caffarra eta bestek (2015) diote bi modelo hauek suposizio berbera daukatela: “*the L1 grammar is the basis for the L2 syntactic analysis and the L1 processing influence the L2 acquisition*”; hau da, H2ko analisi sintaktikorako oinarria H1eko gramatika da eta H1eko prozesamenduak H2ko jabekuntzan eragiten dauka (MacWhinney, 2005).

⁵ SOA (subjektu, objektu, aditz) eta SAO (subjektu, aditz, objektu) hitz-hurrenkerak

4.2. JABEKUNTZAREN ADINA

Bigarren hizkuntzaren jabekuntza adina beste faktore inportante bat da. Faktore honek azaltzen digu adinak baduela garrantzia hizkuntzaren jabekuntzan. Bizitzan zehar jazotako aldaketa biologikoek eragina daukate hizkuntzaren jabekuntza honetan: lateralizazioaren amaiera, burmuinak une jakin batean pairatzen duen plastizitatearen galera... Horrelako aldaketa biologikoak hizkuntzaren jabekuntzak pairatzen du. Hortaz, aro sentikorra baino lehen H2z jabetzen diren hiztunek aukera gehiago izango dute natiboetatik hurbilago egoteko; aldiz, pubertaroaren ostean bigarren hizkuntza bat ikasten duten hiztunek, zailtasun handiagoak izango dituzte natibo baten antzera hizkuntza menperatzeko, aurretik aipatutako aldaketa biologikoak direla medio. Caffarra eta beste (2015) artikulua atal honetan ondoriozta dezakegu aldaketa biologikoek arestian aipatutako aro sentikor horretan (3.1. atala) zerikusia handia daukatela; hizkuntza garatzeko orduan, urteak joan ahala eta pubertaroan sartuz gero, natiboen hizkuntza-mailara heltzea ia ezinezkoa izango da.

4.3 HIZKUNTZA-MAILA

Atal honetan hiztunek H2n daukaten hizkuntza-maila hartzen da kontuan. Faktore hau oso indibiduala da, bakoitzak hizkuntzekiko gaitasun desberdinak dauzkalako; batzuk lexikoan zentratuko dira , beste batzuk sintaxi mailan... hortaz, hiztunak maila desberdinak erakuts litzake hizkuntzalaritzako alor desberdinetan.

Bigarren hizkuntzako prozesamenduan Ullmanek (2001, 2004) bere *declarative/procedural* modeloan bi prozesu nabarmentzen ditu. Eredu honetan esperientziak eta praktikak zerikusi handia daukate, beraz, hizkuntza-jabekuntzaren adinak zeresanak ditu faktore honetan. Honi lotuta, burmuineko bi sistema azpimarratuko genituzke bigarren hizkuntzako prozesamenduan: *declarative* eta *procedural*. *Declarative* sistema honek lexikoa eta semantika hartuko ditu oinarritzat; *procedural* aldiz, gramatika eta sintaxia izango ditu hizpide. Azkenengo honek rol garrantzitsuago bat jokatu du hiztunak bere hizkuntza-maila areagotzean.

4.4. MURGILKETA

Bigarren hizkuntzako inputen kantitateak eta jasotako informazio moduak ere garrantzizkoak dira hiztunak lortuko duen mailarako; hortaz, beste faktore inportante baten aurrean geundeke.

Irakaskuntza formal batean H2ko inputak ingurune hezitzaile batera mugatuak daude; normalean, H2ko hiztunek hizkuntza xedea lor dezaten, ibilbide eten eta egituratu baten aurrean aurkitzen dute euren burua (Muñoz, 2005). Murgilketarekin aldiz, H2ko inputak ugariak dira, egoera, eremu eta testuinguru askotan aurki baitezakete haien burua. Gainera, H2ko hiztunak elkarreraginaz baliatuako dira hainbat esparrutako inputak prozesatzeko eta esan nahi dutena hartzaileari ulergarriago egiteko. Honi jarraituz, Caffarrak eta bestek (2015) diote elkarreraginezko egoera hauek naturalagoak direla irakaskuntza formalarekin alderatuz gero.

4.5. H2KO PROZESAMENDUKO AKATS MOTAK

H2ko prozesamenduan bi akats mota nabarmen ikertu dira: perpaus egituren akatsak (hitzen gramatika kategorien akatsak, hitzen omisioa, hitz hurrenkera...esate baterako: *etxea Gorkaren*) eta akats morfosintaktikoak (genero, numero, kasu, pertsona komuntadura, denbora marken akatsak... hala nola *etxean etorri naiz*).

H1-H2 arteko antzekotasunaren faktorean aurkitutako akatsetan hizkuntzak antzeko edo desberdintzat har ditzakegu. Perpaus egituren akatsetan antzekotzat hartuko ditugu hizkuntzak, biek buru posizio berbera badute, hots, biak buru lehena edo buru azkena baldin badira. Euskarazko kasuan, buru azkena izanik (*Gorkaren etxea*), parametro honetan desberdina izango litzateke gaztelaniarekin alderatuz (*casa de Gorka*). Akats morfosintaktikoetan aldiz, hizkuntzak antzekoak direla adierazteko bi baldintza hauek izan beharko ditugu kontuan: gramatika ezaugarri berberak bi hizkuntzetan (numero, genero eta argumentu edo pertsona) eta osagai berberak (izenadeterminatzailea).

5. ELEBIDUNA IZATEAK ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK DITU

Orokorrean elebiduna izatean edo norbait elebiduna dela jakitean, abantailak dituela datorkigu burura. Arestian aipatu bezala, elebidun edo eleanitzek euren lehen-hizkuntzaz aparte, beste hizkuntza bat edo gehiago hitz egin dezakete; hortaz, hainbat hizkuntzatan komunika daitezke egoeraren arabera. Adibide bat ipintzearen, atzerrian egonda, Alemanian esate baterako, eta taberna batean zeozer bazkaltzeko eskatzean, alemana jakinik abantailak besterik ez dizkiogu ikusiko egoerari, elebidun edo eleanitza izateagatik. Aitzitik, elebiduna izateak ez ditu beti abantailak islatu ikertzaileen artean. Abantaila eta desabantailen atal hau aurkezteko, Ardila (2012) eta Costa (2015) artikuluetan oinarrituko naiz.

1920-1960 urteen artean, ikerketen arabera orokortu egin zen hizkuntza bat baino gehiago jakiteak hizkuntza-gaitasun eta gaitasun kognitiboak gutxitzen zituela. Garai hartako pentsalarien aburuz, Max Adler esanguratsuen izanik (Costa 2015eko artikuluan aipatua), bi hizkuntza edo gehiago kudeatzean, pertsona elebidunek bi sistema linguistiko koordinatu behar dituzte; horrela izanik, sistema horiek hiztuna gehiegizko kognizio baliabideak erabiltzera behartzen dutela adierazi zuen Max Adlerrek. Zer gertatzen da? Kognizio baliabide horiek beste gaitasun batzuen garapenera zuzendu behar dira eta hortaz, hizkuntzen garapenetik kanpoko baliabide kognitiboak dira. Aitzitik, 60. hamarkada horretan eta lehenagoko hamarkadetan iritzi hauen kontrako pentsaerak ere bazeuden; esate baterako, Weinreich (1953) ez zetorren pentsaera hauekin bat eta adierazi zuen elebitasunak ez zeukala eragin negatiborik garapen intelektualean. Nahiz eta pentsaera hauek guztiek zientzia oinarriak ez izan, elebidunen inguruko eztabaida sortu zuten: ba al da onuraduna edo kaltegarria gure burmuinarentzat elebiduna izatea?

Oraindik asko ikertzeke dago gai honetan eta askotan ez dago aukerarik erantzun dikotomikorik emateko, hots, baiezko edo ezezko erantzunak emateko. Costa-ren artikuluan (2015) islatzen denez, gaur egun dakigunez elebiduna izateak hala onurak nola kalteak ekar litzake. Bi aspektu desberdin kontrajartzen dira: alde batean, elebazarrek errazago daukate, hizkuntza batean soilik mintzo baitira; elebidunak aldiz, hizkuntza batetik bestera igaro behar dira eta hori beharbada zoramena izan daiteke burmuinerako, bi sistemen arteko interferentzia sor baitaitezke. Kontrako aldean ordea,

aipatu bezala, elebiduna izateak dakarren onura hizkuntza batean baino gehiagotan komunika zaitezkeela da; elebakarrak aldiz, bere hizkuntzan komunika daitezken pertsonekin soilik komunika daitezke.

Honetaz aparte, Costak (2015) aipatzen duenez, ikerlari askok adierazi dute elebitasunak dementziarekin loturiko sintomak urte batzuk atzeratu ditzakela; beste askok adierazi dute neuroendekapenezko gaixotasunak saihestu ditzakela, azken adierazpen hau guztiz gehiegizkoa izanik.

Aurreko onurei loturik, elebitasunaren eragin positiboek flexibilitate mentala, kognizio kontrolaren areagotzea eta metalinguistikaren inguruko kontzientzia handiagoa dakarzkigute, besteak beste. Aitzitik, eragin negatiboek hizkuntzaren garapen motelagoa eta hitz-jariakortasunaren gutxitzea ekar ditzakete. Ondoren, elebitasunaren abantaila eta desabantailak sailkatuko ditut, A. Ardilak (2012) artikuluan erabili zuen egiturari erreferentzia eginez, baita Costak (2015) aipatutako iruzkin nabarmenenak kontuan hartuz.

5.1. ABANTAILAK

Hurrengo paragrafoetan elebiduna izateak dakartzan abantailei erreparatuko diet; horretarako, abantailak hiru multzotan banatuko ditut: estrategia kognitibo berrien ikaskuntza, ama-hizkuntzaren ulermen hobeagoa izatea eta kontrol kognitiboaren handitzea.

5.1.1. *Estrategia kognitibo berrien ikaskuntza*

Atal honetan gramatika eta lexikoaren inguruko estrategiari buruz hitz egingo dut. Gramatika ideien edo perpausen sekuentziak egituratzeaz arduratzen da; maila semantiko/lexikoa aldiz, hitzen eta hitz-familia desberdinen sailkapenaz arduratzen da. Elebidunak arrazoibide logikoko bi sistema desberdin erabil ditzake (gramatika) eta sailkapen luzeko sistema bat.

Hizkuntza bakoitzak berezko arau pragmatiko inplizituak ditu; esate baterako, ingelesak 2. pertsona singularreko izenordain bakarra dauka (*you*); aitzitik, alemanak bi desberdintzen ditu: *du* hurbiltasuna adierazten duena eta *Sie*, nolabaiteko distantzia edo kortesia ematen duena:

(3) a) Kannst du mir das Buch geben, bitte?⁶

b) Können Sie mir das Buch geben, bitte?⁷

(4) Can you give me the book?

Adibideei erreparatzen badiegu, (3) adibidean alemanezko antzeko bi egitura ditugu; (a) perpausak *du* 2. pertsona singularreko izenordaina dauka; (b) perpausak aldiz, kortesiazko 2. pertsona singularreko izenordaina dugu, *Sie*. (4) adibideari erreparatuz gero, arestian aipatu bezala, ingelesak 2. pertsona singularrerako izenordain bakarra dauka, hortaz ez dauka kortesiazko modurik. Honekin gogoeta batera hel gintezke: ingeles baten gogo/burmuinean ez al dago kortesiaren errepresentazio mentalaren aztarnarik?

Aurreko adibideekin ulertu beharra dago hizkuntza bakoitzak arau pragmatiko implizituak dituela; elebitasunak hizkuntzen arau desberdinak alderatzera eta horren inguruko gogoetak egitera bidera zaitzake; horrela izanik, honek metalinguistikaren kontzientzia hobe batera eramaten zaitu, lehen hizkuntzaren arau gramatikalak hobeto ulertzera, esate baterako. Elebitasunak hortaz, erlatibismo linguistikoaren⁸ ulermenera eraman gaitzake, hiztunek kontzeptuen errepresentazio desberdinak izan baititzakete hizkuntzaren arabera; hau da, goiko adibideari erreparatuz, aleman batek ezezagun bati kortesia moduan hitz egiterakoan *Sie* izenordainaz baliatuko da; aldiz ingelesak, burmuinean kortesia hori ez dago aleman batek daukan modu berean irudikatuta eta izenordain berbera erabiliko du ezagun bati edo ezezagun bati hitz egiterako orduan. Hargatik, arestian plazaratu dudan gogoeta, ingeles batek ez badu kortesiaren errepresentaziorik gogo-burmuinean, hizkuntzek mundu desberdinak sor ditzaketelakoan gaude. Honi lotuta, Pavlenkok bere lanean⁹ egindako ondorioa ekarriko dut gogora: “*el bilingüismo puede ser extremadamente benéfico para enriquecer los repertorios lingüísticos de sus hablantes, ofreciéndoles conceptualizaciones alternativas, básicas para el pensamiento crítico y flexible*” (Pavlenko (2005): 447, Ardila 2012tik hartua 103.orrialdetik); hots, elebitasuna hiztunen hizkuntza erreperitorioa aberasteko oso onuragarria izan daiteke, kontzeptualizazio desberdinak eskaintzen ditu, pentsamendu malgu zein kritikorako ezinbestekoak direnak.

⁶ Eman diezadakezu liburua, mesdez?

⁷ Eman zeniezadake liburua, mesedez?

⁸ Erlatibismo linguistikoa: “ama-hizkuntza jakin bat mintzatzeak modu jakin batean pentsatzera eramaten gaitu”. (Sapir)

⁹ Pavlenko, E. (2005). Bilingualism and thought. In: J. F. Kroll & A. M. B. de Groot (Eds.), *Handbook of bilingualism. Psycholinguistic approaches* (pp. 433-453). New York: Oxford University Press.

5.1.2. Lehen-hizkuntzaren ulermen hobea

Hizkuntza bat baino gehiago jakiteak lehen hizkuntzaren ulermena hobetzera eramaten gaitu. Bigarren hizkuntza baten ikasketak gure lehen-hizkuntzaren inguruko gogoetak egitera bidaltzen gaitu, bi hizkuntzak alderatzera. Honekin ikusiko dugu gure lehen hizkuntzak errealitatea egituratzeko berariazko modu bat ordezkatzeko duela eta ez dela mundua kontzeptualizatzeko modu bakarra, hau da, mundua errepresentatzeko beste modu batzuk (hizkuntzak) daudela. Hortaz, bi hizkuntza ezagutzean gure lehen hizkuntzaren Barne-hizkuntza hobeto ulertzera eramango gaitu eta honek abilitate kognitibo eta metalinguistikoak areagotuko ditu.

5.1.3. Kognizio prozesuaren hobetzea

Urte hauetan zehar ikerketa asko egin dira elebidunen kognizio kontrolari buruz. Craik & Bialystok (2005) ikertzaileek atera duten ondorioa zera da: elebitasunak erlazio handia dauka prozesamenduaren kontrolarekin eta funtzio exekutiboak¹⁰ areagotu ditzake. Hortaz, haien esanetan elebidunek jokabidean kontrol handiagoa izan dezakete, arazoak errazago konpontzeko estrategiak sor ditzakete eta memoria hobea, besteak beste.

Costak (2015) ere elebitasunak gaitasun kognitiboari on egiten diola aipatzen du. Costaren artikulua horretan, 2000n Londreseko Unibertsitatean A. Maguirek eta bere ikerketa taldeak desestaltako hipotesi bat aipatzen da; oroimen eta espazio-orientabideaz arduratzen diren garun-egiturak garatuagoak agertzen dira egunerokotasunean kognizio-abilidade horiek erabiltzen duten pertsonengan, hala nola elebidunetan. Hortaz, Costaren aburuz, elebitasunak eragin zuzena dauka kognizio-gaitasunean eta hau sostengatzen duten garun-egituretan, esan bezala, funtzio exekutiboetan (arreta, buru-malgutasuna, plangintza...).

¹⁰ Funtzio exekutiboak: inhibizioa, kognizio flexibilitatea eta memoria

5.2. DESABANTAILAK

Desabantailei dagokienez, Ardilak (2012) artikuluan dio zenbait idazlek elebitasunak ekar litzakeen ondorio negatiboak buruzko adierazpenak sendotasun edo koherentziarik gabeko adierazpenak direla. Eragin horien artean desabantaila hauek aipatzen ditu: hizkuntzekin arazoak dituzten umeez zailtasun handiagoak izatea hizkuntzaren ikasketan, hitz jariakortasunaren gutxitzea edo murrizketa eta hizkuntzen arteko interferentzia.

5.2.1. *Hitz-jariakortasunaren moteltzea*

Rosselli et al-ek (2000) hitz-jariakortasunaren inguruan ikerketa bat egin zuten. Ikerketa honetan espainiar eta ingeles elebarrak eta elebidunek parte hartu zuten eta ikertzaileek antzekotasunak sumatu zituzten haien arteko hizkuntza jariakortasunaren jardura desberdinetan, hitz jariakortasun semantikoa izan ezik. Alor honetan ikergaien hitz jarioa neurtu zuten semantikari begira, hau da, proposatu zieten animalien izenak esateko minutu bateko epean. Elebidunen kasuan, hitz-jariakortasunaren moteltasuna antzeman zen, hots, izen gutxiago eman zituzten elebarrarekin alderatuz gero. Rosselli et al.-ek pentsatzen dute, hiztegi ariketa honetan, elebidunek hitzak polikiago aipatzeak hizkuntza-aldaketekin zerikusia zuela, bai ingelesez eta bai gaztelaniaz jariakortasunaren murrizketa edo gutxitze hori pairatzen baitzen.

Aurreko adibidea baieztatzeko, Gollan, Montoya eta Wernerrek (2002) ere antzeko emaitzak antzeman zituzten euren ikerketan. Honetan, gaztelania eta ingelesezko elebidunak alderatu zituzten ingeles hiztun elebarrarekin, hitz jariakortasunaren inguruko jardura desberdinei ekiteko. Elebidunei jardura guztietan moteltasuna nabaritu zitzaion baina zehazki moteltasun nabarmenagoa sumatu zuten ikertzaileek semantikaren alorrean.

Bi adibide hauekin ondoriozta dezakegu orokorrean, elebidunen hitz-jariotasunean nolabaiteko gutxitzea dagoela elebarrarekin alderatzen badugu. Gutxitze honen arrazoia hizkuntza aukeratzeko behar duzun denbora izan liteke, edo hizen zehatz bat hizkuntza bati edo besteari dagokion erabakitze xahutzen duzun denbora; hortaz, hitz jarioaren moteltasun hura hizkuntza batetik bestera pasatzean gastatzen duzun denbora izan liteke zergatia.

Honi lotuta, interesgarria irudi dakiguke mihi-puntako egoerak gogoratzea. Egoera hauetan, hiztunak gogoan dauka esan nahi duen hitza baina ez zaio ateratzen; hortaz, bere formari erreparatu, hitz jakin hura deskribatuko edo hitz hasierako letra esango du. Egoera mota hauek nabarmenagoak dira elebidunen artean elebakarren artean baino (Ardila, 2012).

5.2.2. *Hizkuntzen arteko interferentziak*

Atal honetan elebidunak hitz egiten dituen hizkuntzen arteko erlazioaz hitz egingo dut. Bi hizkuntzak aktiboak direnean eta bata bestearekiko hurbiltasun lexikoak ditutenean hizkuntzen arteko interferentziak sor daitezke.

Eremu elebidun batean bi hizkuntzak aktiboak direnean eta hizkuntza batetik bestera igarotzen garenean, kodigo aldaketa horren ondorioa hizkuntzen arteko intereferentzia izan daiteke. Gure eremuan esate baterako, jende asko euskaraz ari denean gaztelainazko hitzen bat ager daiteke bere diskurtsoan (esaterako, *porque, así que...*). Ardilak (2012) bere artikuluan *lengua hibrida* aipatzen du eremu soziolinguistiko elebidunetan hizkuntzen arteko interferentziagatik sortutako hizkuntza; hala nola, *espanglish* (gaztelaina eta ingelesa) edo *portuñol* (portugesesa eta gaztelaina). Ardilak proposatu zuen aipatutako espanglish bezalako hizkuntza-hibrido hauetan bi gertakari linguistiko desberdin bereizi genitzakela; azalekoak (maileguak eta kodigo aldaketa) eta sakonekoak (alderdi lexiko-sematikoak eta gramatikala).

Hizkuntzen arteko intereferentzia hori sor ez dadin, elebidunen prozesu kognitiboen funtzionamenduaren bitartez lortuko da. Prozesu kognitiboek erabili nahi ez duten hizkuntza erabiltzea saihestuko dute. Kontrol hau lortzeko arduraduna burmuineko ezkerreko hemisferioa da.

6. ERGATIBOTASUNAREN PROZESAMENDUAZ IKERKETAK

Elebitasuna aztertzen ari garen lan honetan, bigarren hizkuntza baten ikas-prozesuan eragina daukaten faktoreak ikusita, ergatibotasuna nola prozesatzen duten natiboek eta ez natiboek aztertuko dugu. Horretarako, Adam Zawiszewski (2017) eta

Diaz eta besteren (2016) artikulua hartu ditut oinarri moduan; aipatutako horietan, ergatibotasunaren prozesamenduz hitz egiten dute, jokabidezko ebidentziak zein ebidentzia elektrofisiologikoak kontuan hartuz.

Orain arte ergatibotasuna ikuspuntu teoriko batetik aztertua izan da, oso gutxi ikertu da honen prozesaketari buruz. Zawiszewski (2017) eta Diaz eta beste (2016) oinarri izanda, ergatibotasunaren prozesamendura hurbilduko gara, ikerketa esperimenteratzaile batzuei esker.

6.1. ERGATIBOATESUNAREN PROZESAMENDUA: NATIBOAK ETA EZ-NATIBOAK

Zawiszewski (2017) artikuluan populazio natiboen ergatibotasuna ez ezik, hiztun ez natiboen egoera ere ikertua izan da. Artikulu horretan, Zawiszewskik (2011) artikuluan baliatutako ERPak erabiltzen ditu, elebidunen H1 eta H2k H2ko prozesamenduan ze puntutaraino daukaten eragina jakiteko. Ikerketa honetarako, euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara elebidunak hautatu zituzten. Jakinda euskara eta gaztelaniaren desberdintasun nabarmenatariko bat kasu sistema dela (euskara ergatibo-absolutibo eta gaztelania nominatibo-akusatibo), autoreek aztertu zuten nola euskaldun zaharrek eta hizkuntza gaitasun handia zuten euskaldun goiztiarrek (3 urte baino lehenago) jokatzen zuten perpaus gramatikal eta ez-gramatikalen aurrean.

Honelakoak izan ziren perpausak:


(5) Goiz-ean ogia erosi dut **ni-k** denda-n.

(6) Goiz-ean ogia erosi dut ***ni** denda-n

5. perpausa gramatikala den bitartean, 6.a ez-gramatikala dugu, *ni** subjektuak ergatibo marka behar duelako, hots, *-k* marka. Parte-hartzaileei eskatu zieten perpausak irakurtzea eta epaitzea ea perpausak gramatikalak ziren edo ez. Jokabide emaitzek erakutsi zuten hiztun ez-natiboen natiboen baino eraginkortasun gutxiago zeukatela, hots, akats gehiago egiten zituzten. (%85 vs %97). Patroi elektrofisiologikoen (ikus 1.irudia) ere bi populazioen arteko desberdintasunak sumatu zituzten: euskara H1 duten

parte-hartzaile taldearen artean, ez-gramatikaltasunak N400 eta P600 emanez; bestalde, euskara H2 dutenen artean, N400 besterik ez zuten aurkitu.

Emaitza hauek erakusten dute hizkuntza-gaitasun handia eta hizkuntza-jabekuntza goiztiarra izan arren, euskal hiztun ez-natiboek ergatibotasuna desberdin prozesatzen dutela natiboekin alderatuz gero, jokabideen datu zein datu elektrofisiologikoek erakusten duten legez. Honek adierazten digu natibo eta ez-natiboen arteko desberdintasunak datozela ez-natiboen gramatikaren parametro sintaktikoak natiboenarekin alderatuz desberdinak badira.



1. Irudia. ERPetan agertzen diren lerro etenek kasu ergatibozko akatsak islatzen dituzte; lerro zuzenek aldiz, perpaus gramatikalak. Ezkerreko aldea natiboena litzateke eta eskuinaldekoa ordea, ez-natiboena. Negatibotasuna goran islatuko da; N400 antzekoa da natibo zein ez-natiboentzat; P600 aldiz, natiboen taldean soilik dago islaturik. Zawiszewki (2011)

Amaitzeko, emaitza hauek erakusten dute kasu sistema kontuan hartzeko faktore garrantzitsua dela, natibo eta ez-natiboek hizkuntza prozesaketa baten aurrean nola jokatzten duten konparatzen ditugunean.

6.2. ERGATIBOTASUNAREN PROZESAMENDUAZ BESTE IKERKETA BAT

Ergatibotasunaren prozesamenduarekin amaitzeko, Diaz eta bestek (2016) artikuluan oinarrituko naiz, ikertzaileek plazaratutako hipotesiak azalduz. Aurreko atalean bezala (6.1.), ergatibotasunaren prozesamendua aztertuko dut, natibo eta ez-natiboak diren hiztunen artean. Aipatutako artikulua horretan (2016), plazaratutako ikerketa honetan datza: gaztelania H1 eta euskara H2 modu goiztiarrean (jabekuntza adina = 3 urte) ikasitako elebidunen eta gaztelania H1 eta euskara H2 berandu (jabekuntza adina = 18 urte) ikasitako elebidunen arteko konparazioa. Ergatibotasunaren prozesamendua aztertzeko, ikertzaileak ERP metodoa eta jokabide aztarnez baliatu dira. Parte-hartzaileek euskarazko hainbat esaldi epaitu behar izan zituzten, gramatikal edo ez-gramatikalak ziren adieraziz. Ikertzaileek eskainitako esaldiek akats sintaktikoak zituzten, hala nola, ergatibo kasuzko akatsak eta aditz-komunztadurakoak, bai subjektu bai objektu komunztadurakoak; azken ezaugarri gramatikal hau, objektu komunztadurakoa, elebidunen H2ko hizkuntzak soilik dauka, hots, euskarak. Dakigun moduan, gaztelaniako aditzak ez du objektuaren markarik, hau da, ez du objektua aditzean islaturik (ikusitako adibideak, 7, 8, 9 eta 10).

(7) Iker ha visto al niño en el parque.

(8) Iker ha visto a los niños en el parque.

(9) Ikerrek umea parkean ikusi du.

(10) Ikerrek umeak parkean ikusi ditu

Esan bezala, objektu komunztadura euskarak daukan ezaugarri gramatikala da, gaztelaniak aldiz, ez. Adibideetan ikus dezakegun legez, 7. eta 8.ek aditz bera dute (*ha visto*); hortaz, nahiz eta objektua singularra edo plurala izan, aditza ez da aldatuko, ez delako objektua aditzean islatzen. 9. eta 10. adibideetan ordea, aditza aldatu egin da: 9.ean objektua singularra izanda (*umea*), aditz-laguntzailea *du* izango da, objektuaren 3.pertsona singularra islatuz. 10.ean aldiz, objektua *umeak* da, plurala; hortaz, aditz-laguntzailean islaturik joan behar du objektu horrek, plurala sortuz, *ditu*.

Gaztelania eta euskararen arteko (des)berdintasun tipologiko horiek ezagutuz, ikertzaileek parte-hartzaileei emandako perpausak azalduko ditut orain. Hasteko, esaldi gramatikal bat plazaratu zieten; jarraitzeko, subjektu-aditz komunztadura akatsa duen

perpaus bat eta ostean, ergatibo kasuaren akatsa duen bat. Honi jarraituz, objektu-aditz komunztadura duen esaldi gramatikal bat irakurrarazi zieten eta ondoren, objektu-aditz komunztadura duen perpaus ez-gramatikal bat. Ondoren, argiago ikusiko ditugu eskainitako perpausak:

Esaldi gramatikala

(11) Mikel-en **arreb-ek egunkari-a** saski-a-n ekarri **d-u-te** kiosko-tik

Subjektu-aditz komunztadura akatsa

(12) Mikel-en **arreb-ek** egunkari-a saski-a-n ekarri **d-*u** kiosko-tik

Ergatibo kasuaren akatsa

(13) Mikel-en **arreb-ek egunkari-*ek** saski-a-n ekarri d-u-te kiosko-tik

Objektu-aditz komunztadura esaldi gramatikala

(14) Mikel-en arreb-ek **egunkari-a-k** saski-a-n ekarri **dit-u-zte** kiosko-tik

Objektu-aditz komunztadura akatsa

(15) Mikel-en arreb-ek **egunkari-a-k** saski-a-n ekarri ***d-u-te** kiosko-tik

(11). adibide gramatikala oinarritzat hartuta, parte-hartzaileek subjektu-aditz komunztadura akatsa eta ergatibo kasuaren akatsa epaitu behar izan zituzten. Subjektu aditz-komunztadurak (12) parte-hartzaileen H1 eta H2k amankomunean daukaten ezaugarri bat da, hortaz, hor ez legoke desberdintasun handirik egongo. (13). adibidean ere parte hartzaileen arteko ERPak antzekoak lirateke, ergatibo kasua haien H2an soilik egonda, eta ez gaztelanian, kasu nominatibo-akusatibo baita. (13). adibide horretan, nahiz eta elebidun goiztiar zein berantiar izan, euren ERPeK ez lukete kointzidituko natiboen ERPeKin, esan dugun bezala, euskaran soilik (haien H2) agertzen den ezaugarri gramatikala baita.

Objektu-aditz komunztadura akatsa epaitzeko, beste perpaus gramatikal bat hartu behar izan zuten oinarritzat, hots, (14). adibidea; horri jarraituz, objektu-aditz

komunztadura akatsaren perpausa (15) epaitu zuten. Ezaugarri gramatikal hura soilik parte-hartzaileen H2an (euskaran) dagoen ezaugarria da, gaztelanian ez (ikusi 7, 8, 9 eta 10 adibideak). Natiboen ERP-etatik hurbilago daude elebidun goiztiarrak berantiarrak baino, aditz komunztaduran; hau da, eraginkorragoak dira goiztiarrak. Hala ere, eraginkorragoak dira subjektu-aditz komunztadura epaitzean objektu-aditz komunztaduran baino. Lehen ezaugarri sintaktikoa parte-hartzaileen H1 eta H2an ageri da, hots, subjektu-aditz komunztadurarena; objektu-aditz komunztadura, aldiz, soilik parte-hartzaileen H2ko ezaugarria da. Hortaz, eraginkorragoak dira elebidun goiztiarrak subjektu-aditz komunztadura aztertzen objektuaren baino, lehenengoa bai H1 eta bai H2ko ezaugarri sintaktikoa baita.

Ergatiboatasunaren prozesamenduaren ikerketa honi amaiera emateko, ikertzaileek diote ez natiboen prozesamendu sintaktikoen ERPak natiboen prozesamendu sintaktikoenera hurbilago daudela bi hizkuntzetan ageri diren ezaugarri sintaktikoak prozesatzen eta epaitzen dituztenean (esate baterako, subjektu-aditz komunztadura edo objektu-aditz komunztadura). Aldiz, ez natiboen H1ean ageri ez den ezaugarri sintaktiko bat prozesatzen dutenean (hala nola, kasu ergatiboa), berdin dio jabekuntza adina zein den eta gaitasun linguistikoa zein den, nekez hurbilduko dira natiboen prozesamendu sintaktikora.

7. ONDORIOAK

Lanean zehar aipatu bezala, gaur egun bizi garen gizartean elebitasunak garrantzi handia hartu du. Nazioartean komunikatzeko, hizkuntza bat baino gehiago jakiteak jarduera anitz egitera ahalbidetu zaitzake. Halaber, hezkuntza geroz eta eleanitzagoa da eta orokorrean, guraso askok euren seme-alabek hizkuntza bat baino gehiago jakiteari lehentasuna ematen diote.

Hori dela eta, elebitasunaren inguruko ikerketak areagotu dira. Arestian esan bezala, XX. mendean sortutako psikolinguistikak alor honen inguruko ikerketak elebazarretan zentratutakoak ziren soilik. Hizkuntzei emandako garrantziaren ondorioz, elebitasunei buruzko ikerketek gorantz egin dute, elebidun batek nola prozesatzen dituen bi hizkuntzak eta garunak erabiltzen dituen mekanismoak eta baliabideek garrantzia hartuz. Ikusi dugun moduan, H1 garatzeak eta H2 ikasteak zenbait desberdintasun izan ditzake, H2ko ikasketa prozesuan eragina daukaten hainbat faktore

baitaude. H2 ikasten ari den edo ikasi duen hiztun batek nekez ikusiko du haren H2ko maila H1eko mailara helduko denik, esate baterako.

Bestalde, elebitasunaren inguruko desabantailak zein abantailak ikusita, ondoriozta dezakegu elebiduna zein eleanitz izateak abantaila ugari dituela, kognizio prozesuen hobetzea, esate baterako. Aitzitik, baieztatu dugu orokorrean elebakarrek jariakortasun handiago dutela hitzak aipatzerakoan. Nire aburuz, dudarik gabe, elebitasunak desabantaila baino abantaila gehiago ditu, hizkuntza bat baino gehiago menperatzeak jarduera ugari egitera ahalbidetzen baitzaitu.

Elebitasunak izan ditzakeen abantaila zein desabantailak ikusita, ergatibotasunaren prozesamenduz aritu naiz, euskara hizkuntza ergatibo-absolutibo bat izanik. Ikusi ahal izan dugu 6.atalean natiboek beste modu batera prozesatzen dutela ergatibotasuna, ez-natiboekin alderatuz gero. Gainera, hizkuntza maila zein jabekuntzaren adina edozein direlarik, elebidun goiztiarra zein berantiarra izan, ez natiboek ez dute ergatibotasunaren informazioa prozesatuko natiboek prozesatzen duten erara.

8.ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA

Abdelilah-Bauer, B. (2007). *El desafío del bilingüismo*. Madrid: Ediciones Morata

Ardila, A. (2012). Ventajas y desventajas del bilingüismo, *Forma y función*, 25 (2), 99-144 orr.

Baus, C., Costa, A. eta Hernandez, M. (2015). El cerebro bilingüe, *Mente y cerebro*, 71, 34-41 orr.

Bialystok, E. y K. Hakuta, K. (2003). "Critical Evidence: A Test of the Critical Period Hypothesis for Second Language Acquisition", *Psychological Science*, 14 (1), 31-38 orr

Birdsong, D. (2013). *Second language acquisition and the critical period hypothesis*. New York: Routledge

- Caffarra, S., Molinaro, N., Davidson, D. J. & Carreiras, M. (2015). Second language syntactic processing revealed through event-related potentials: an empirical review *Neuroscience & Biobehavioral Reviews*, 51, 31-47 orr.
- Cummings, J. (1979). "Linguistic interdependence and the educational development of bilingual children", *Review of Educational Research*, 1979, 49.orr.
- Díaz, B.; Erdocia, K.; De Menezes, RF.; Mueller, JL.; Sebastian-Galles, N. & Laka, I. (2016) Electrophysiological correlates of second-language syntactic processes are related to native and second language distance regardless of age acquisition, *Frontiers in Psychology*, 7, 1-12 orr.
- King, K. A. (2010). "Haurren hizkuntza-jabekuntza". In Fasold, R. eta Connor-Linton J. (argit.), *Hizkuntza eta hizkuntzalaritza hastapenak*. Bilbo: UPV/EHU. 223-254 orr.
- Klein, W. (1986). *Second language acquisition*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Laka, I. (2008). Hizkuntzaren sustrai biologikoen inguruan, *Ekaia*, 21, 141-161 orr.
- Mackey, A. (2010). Bigarren hizkuntza jabekuntza. In Fasold, R eta Connor-Linton, J. (argit.), *Hizkuntza eta hizkuntzalaritza hastapenak*. Bilbo: UPV/EHU. 463-496 orr.
- Pallier, C. eta bestek (2003). "Brain imaging of language plasticity in adopted adults: Can a second language replace the first?", *Cerebral Cortex* 13 (2), 155-161 orr.
- Pavlenko, E. (2005). Bilingualism and thought. In: J. F. Kroll & A. M. B. de Groot (Eds.), *Handbook of bilingualism. Psycholinguistic approaches* (pp. 433-453). New York: Oxford University Press.
- Saville-Troike, M. (2006). *Introducing Second Language Acquisition*, Cambridge: Cambridge University Press
- Zawiszewski, A. (2014). Hizkuntzaren ekoizpena eta ulermena. *Ekaia*, 27, 315-327 orr.
- Zawiszewski, A. (2017). Processing ergativity: behavioral and electrophysiological evidence. In J. Coon, D. Massa, L. Travis, (Eds.) *The Oxford Handbook of Ergativity*. Oxford University Press, 693-708 orr.

Zawiszewski, A., Gutierrez, E., Fernandez, B. & Laka, I. (2011). Language distance and non-native syntactic processing: Evidence from event-related potentials. *Bilingualism: Language and Cognition*, 14, 400-411 orr.